

LOTURA KIMIKOA (ARIKETAK)

1. Azal ezazu zein motatako ioia lortuko edn ondoko kasuetako bakoitzean. Erabil ezazu *a ataleko* eredua.

a. Fluoroak elektroi bat irabazi du: $F + 1e^- \rightarrow F^-$

b. Burdinak hiru elektroi galdu ditu.

c. Sufreak bi elektroi irabazi ditu.

d. Kaltzioak bi elektroi galdu ditu.

e. Bromoak elektroi bat irabazi du.

f. Potasioak elektroi bat galdu du.

2. Aipatu kasu bakoitzean ematen den *lotura mota*. Aipatu ere *zer nolako egitura duen* (*kristala eratzen den edota molekulak eratzen diren*) konposatu bakoitzak.

3. Oxigenoaren (Z=8) konfigurazio elektronikoa $1s^2 2s^2 2p^4$ da. Ur molekulan, oxigenoak bi lotura kobalente eratzean, bi elektroi bikote partekatzen ditu, eta konfigurazio elektronikoa izatera pasatzen da, neonarena bezalakoa.

- Antzera arrazoitu, **amoniako molekulan (NH₃) nitrogenoak hiru lotura kobalente zergatik eratzen dituen azaltzeko** eta, halaber, **metano molekulan (CH₄) karbonoak lau lotura zergatik eratzen dituen azaltzeko**.

4. Potasio kloruroa **solidoa da giroko tenperaturan, tenperatura altuan urtzen da, nahiko disolbagarria da uretan** eta **beraren disoluzioa elektrizitatearen eroalea da**. Azal ezazu zein motatako substantzia den.

5. Substantzia ionikoek eta metalek ioiak dituzte, baina substantzia kobalenteek ez. Azal ezazu zein erlazio duen egoera horrek substantzien eroankortasun elektrikoan.

6. Sare kristalinoa eratzen duten partikulen (atomoak edo ioiak) arteko elkarteak molekulen artekoa baino sendoagoa da. Azal ezazu zer erlazio izan dezakeen ezaugarri horrek substantzia horien fusio-tenperaturarekin.